

# I f x a s o k o u r a

Urak osotzen dau itxasoa. Ludi  
eritako iru laurenak ur dira, zeatz  
meatzean amarretik zazpi. Bizi ga-  
rean izarbel oni, beraz, lur mundu  
balio ur mundu deitza obeto li-  
tzakigu, artezago lego-ke-ta. Begira  
mundu-mapa bat, eta zeuk claku-  
sunez, Amerika, Aprika, Eurasia ta  
Australia, izaro mordor batzuk di-  
tugu, ta ur gaiñez agiri yakuzan  
beste ugarteetako saillak zehbattu-  
rik be, doi-doi egingo degu eun da  
berrogetamar milloes kilometru  
laukitu dabezan lur-eremua. Urak,  
ostera, irureun da berrogetamar  
milloce kilometru laukituko zabal-  
dia artzen dau bere estalpean. Itxa-  
soaren zabala, alañ be, ezta killo-  
metru laukika neurtzen, kilometru  
kubikoka baino; au da, iru kaizu  
edo neurri, goiera, zabaleria ta sak-  
onea, gogotan izanik. Itxasoen  
sakona, batez beste, ia lau milia  
metrokuak dogu; jarri au kilometru  
kubikuetan, eta milia ta berreun  
milloe kilometru kubikotik gorako  
ur gazi eremua emengo dausku. Ur  
mukulu arrigarria, benetan!

**Ura, bearrezko dogu.** Ura, mun-  
du onetan bizi izateko, naitaezkoa  
du, eurrez ta nun-nai ipini euskun

Jainkoak: itxasoan, ibaietan, itu-  
rrí-potzuetan, laiñoetan eta abar.  
Modu ta era askotarako erabilli oí-  
dogu ura: eguzkiak galdu ditun  
lurrak busti ta ezatzeko, zikin eta  
loiaik kentzeako, abereak eta landa-  
rak barnean somatzen daben ega-  
rria leuntzeako, Gauzarik asko era-  
txiki gehinkeoz urari.

Ura edateko bear izaten doguta ezta edari txarra, Askotan, baina, loi agertzen da ta orduan garbitu, irazi egin bear; Iaiño bera jausten dan ura loitu egiten da bidean, orban-mota askogaz nastaurik, eta kendu egin bear yakoz aldean daroazan loiok. Urak berez daukazan piztitxo ta kokotxoak il eta lur-loi enparauak kentzeko, urtegiak gaur kloro-lurrundu egin oihala dira urri andietan. Irazki edo urgarbiizaillerik onenak, orraitio, ondarra ta ikatza dira; urak ondarrrean eta ikatzean izten ditu, andik igarotean, aldean ditun loiheri guztiak.

Jainkoak, gizadiari bizileku egokia gertatzean, naitaezko izango eban gai onetatik be aukeraz ta ugari emon eutsan. Gaur gizonok, alan be, asko ugaritu garealako edo, ur-eskax bizi qara aintzat tokian, eta naikoa istillu darabille laterriak gizasemeen bear-izanetarako guraiña ur esku-mende jarri eziñean. Gaur arte, aundirotz bezat, lortu eztan arren, kendu begio itxasoari berezko dauan gazitzena, ta beingoan utseratuko ditu auzi orri buruzko istillu gorriak.

**Ura zer dan.** Ura gorputza da, munduko beste gorputz-mota guztiaik lez. Atalka eratzen dira gor-

putzak, eta gorputz-atal kaskarte  
nari kizi (atomu) deritxagu, ta  
kizi bik edo geiagok, alkarri oratu  
ta itsatsirik, ela (molekula) dagle  
ta elak elakaz alkartu ezkero, gor  
putza. Ur-ela bat, hidrogenu kizi  
bigaz eta oxigenu kizi bategaz al  
kartuta, sortzen da; beronen labu  
rritza onela dogu: H<sub>2</sub>O. Gaur, bol  
ta-neurkiñaren bidez, oso erreza  
dogu ura osatzen daben gai biok  
kizi-elok, banandu ta barriro al  
kartzea,

Antxiñā baten ekaitzat, ots, len-gaitzat eukien ura. Aristotele'ntza-ko, adibidez, lau ziran mundua osatzen eben oñi-gaiak: Iurra, ego-ratsa, sua ta ura. Gerora, 1783-ga-rren urterunetik Cavendish'ek, ingeles Kliniku ospetsuak ura urgazta ordeigaitz (hidrogenuz ta oxige-nuz) gomatz bat degula. Izan be-torputz bakan bi edo geiagoz da-tigu gorputz alkartua, ta esan do-junet, urak iru kizi daukaz, oxigenueko bat eta hidrogenuzko bi-eraz, gomatz alkartua dogu ura.

Kimikesparruan gora guztiz aundiak daudunak. Kimi-jazokun, erasotako edo gizatzeniko gorputz-alkartuetan, bira dago nagusi, naiz bizi-dun abereko landareetan, naiz lurrekoko gaietako, jakin-saio ta ekin-tuetan. Melal eragille batzuk be,

potasi, sodi ta kalzi lakoak, indar-  
tsu artu oi dauz urak; zinka ta  
burdiñea be bai, bero-giroa gora-  
gotu ezkeroz. Ordeiak (oxidoak)  
antolatzeko, gezal saillean atan be-  
ur garratzak, urgeak (anhidri-  
doak), ordei garratzak, gezak sor-  
tzeako ta beste olako naste asko-  
tarako, ura bear da. Tximist-arloan  
be, jakiña, ardura berezia dau, txi-  
mispide erreza baita ura, pizkat  
garraztu ezketiño. Ura ta tximisteak  
etsaiak dira, urrean, tximisteak ur-  
zear igarotekoan, ura bere zati  
bietan banandu egin oi dau-ta.

Oso ugaria dogu, izadiko gai guztietatik ugariena esan geinkei bazterrik asagcenetan be aurkitzen da, ta ez era bakarrean, irutanda, lobelki, legorki ta lurrunki baiño; lobel (likidu) modura itxalez, lobel (likidu) modura itxalez, zingiretan eta ibaietan dâu-soan, zingiretan eta ibaietan dâu-kagu, trilloi ta erdi toneladaiko pixuz; legor (solidu) egoeran, izatz eta edur, munduko eskualde-rik otzenetan; eta lurrun (bapore) eran, basamortu ta lekorroetan bebai, lur gaiñeko zerupean dantza berrogetamar milla bat tonelada tan. Ur mukulu ederra, ziñez, in egoeretako aul Alan eta guzti berau danau bear da izadian bitziar eusteko; giza - soiñak dauan pixua eta abereena be orobat, euneko 70 urarena da; landare-mota batzue

tan, ostera, euneko 90 da uraren pixua. Bizi dan gaiak eurrez ta parrastaka darabil ura.

**Kresala.** Itxasoko urari kresala deritxoetako tokia askotan, gazia da-lako batez be. Nundik ete yatorko gazitasun ohi? Ez da gaurko auzia. Itxas azpian gatz-meta ikaragarriak egozala uste eben aspaldiko mendetan, eta gatz-pillo areik urtutzean, itxasoa gazitu egin ei zan. Halley ta beste batzuen eritziz, asieran gozoa zan itxas-ura, baino gerora, ibaiak eta errekkak narratzaroezan ore ta gaiekin, gazi biurtu yakuntz auziaren argitze onek, alañ be, ez ditu jakitunak hasaitzen: goitik datorkigun euri-uretan, ba, ikatz-gai ugari ta gatz urri-datorkigu. Kloruak dira itxasoak nagusi, Beste gal guslei alde askotaz gaille arturik,

Ura lobel eran daukagu geienbat, baiña itxasoko ura, lobel naiz izotz, naikoa loia da. Larogeta amabi gai edo gorputz bakun eza-gutzen ditu Kiniak, eta itxasoan, uragaz nastean, ogetamabiraiño aurkitzen dira, batzuk bakun eta beste batzuk alkartuta edo nastean; oneik ugari dira, areik gitxi. Danetatik ugarien, ura bera osotzen dabent hidrogenu ta oxigenu saiets itxirik, magnesi ta potasi klorurak, kare-ikatzak eta gatzarriak ditugu; baita eguratsean, naiz-ta urturik, lospel edo gasa pillo galantak be. Uretako bizidunai arnasbide ta bizi-emoille yakiez oneik.

An naiz emen itxasoko urak ki-mi-alkarketa bardin samarra dabe. Gatzari dagokiola, orraitiko, badabe aldea. Itxas-gerrirantza gitxiago daukie, euri-jasa itzalak izan oi diralako; aizekirri-tokietan besterik da, ango giroak lagunduta aizeak egin lurruntzeari euri-jasak ezin arpegi emon dautso-ta. Zear-aizeak joten davan lekuari be, euri-zaparradak ugariagotan diralako, gatza gitxitu egin oi da. Azpi sakoneko urak gatzituagoak dira, lur egaleitakoak baiño. Ipar goi-buruko urak gatz geiago dauka, ego goi-burukoak baiño; egoan euria egiten dau, iparrean gitxiago. Eguz-

kiak zut-zut joten davan eskualdetako lurruntzeak eta eskualdeko gitxitu egin doroa uraren gaitzeza. Gazitasuna, era batera, gago dozu toki beroetan, eta gitxiñak be ba-dabe euren ukalondoa, geitze-gitxitze ointan,

Urak, itxasokoak alan be, gaisi ezkerro beiñik-bein. Eta ur nastean daukazalako, gorputz azta edo pixua ur gezak, gozoak baiño naikoa andiagoa damosku, gaien haste ta lurruntzeagaitik, oi yako-ta. Zergaiti onerj jarraituz dira, antza, ego aldeko itxasoak ipar aldekoak baiño ariñagoak. Mediterraneu, osteria, ibaietatik ardoaria baiño lurruntzen dana geia. Iu aundiak estu artzen dabe; pixua gaitu eghien yako, ta Gibraltar zeairaztorkion Izariñak bardinduko ezpaleo, aien ur-mukulua be gero ta urriago enhiago litzake.


Itxasoko uraren osagai guztietik ugari te izu mukorrena sodi klorura, itxes gilezidezu, iz-uren gatz-alkartetako muturu bat berak baka-

rrrik osotzen dau-ta; beraz, itxaso-ko ur guztia osorik lurrunduko ba'litzaz, 56 metro lodierako gatz pilloa geratuko litzake aren ondarrean. Arritzekoa ezta, ba, naiz itxasoaren barren-barrenean naiz egaletan aurkitzen diran gatzarri meta ikaragarriak; bata bestearen gain pilloka jarri ezkero, erreza tu leikezanak dira, urteen buruz, olako lodiera beteko azal-zerrendak.

Gatz larregia be etxaku egoki, bizia il dagi-ta. Mendiz edo lur-sail zabalez inguraturiko zingira ta itxas-barru txikietan arrisku bat dago, beroak gogor zanpatzen davan tokian bereziki. Eguzkiaren zizta tingo iraunkorrez ura lurrubiutzen da, azpian geraturik gatz-

meta aundiak. Itxas illean, adibidez, litro bateko uretan irureun gatz-gramu daukaguz; itxas illa de-riixogu Jerusalen'dik urre dagon zingirari, guztiz ospetsua kondaira zarrean; an inguruau ezta, izan be, bizitz andirik, ez bedar-zugatzetan ez arrain-piztietan, eta ara doazan erreka-ztoak aldean daroiezan arrankai ta makorrak be il egiten dira, bertako urak ikutuaz batera. Ur sendoak dira ta nekez ito leiteke bertan. Oindiño oraintsu, prantses itxas azpi-ikerle batzuk gorputza —surra, agoa ta begiak batez be— zaintzeko soiñeko apartekoak jantzi ondoren, amazazpi kilo berun aldean artu bear izan ebezan aren azpiraiño jasteko.

Oiz



dagioen, areik saiets itxi ta erreza  
artu daroa ondo yatorkon zuzenbi-  
dea; eta itxas-barruko maskor, be-  
dar-landara ta arraiñak be, ederto  
bizi daitekez azpiko ur berotan,  
naiz otzetan, ur gaiñean antzigar ia  
izotz-orma zabalak edatu arren.

Izburuak izotz-txapel zapalez daukaguz, ez baiña lodiera aundi-koz, azken urteotan andik ibilli dis- ran atomi-indarrezko urazpiko bik- diñoskuenez, azal samarrekoa bai- ta; ipar buruko txapela izotzezekoa da, ego aldekoa barriz betiko edur- saillak osotuten dabena. Ura izoz- tu leor-aldetik asita egin ei da; le- nengo itxas-ertzerantza, ta gero ha- rrurago. Ez dauka lodiera aundirik be: ipar buruetan iru bat metro geien be, ta ego buruke itxasoetan, edurrak lodiera geiago euki arren, 1,50 metro. Izotz-meta oneik eztira toki baten geldi egoten, ara ta ona asko ibilli baiño; ipar buruak naspiltsu dira, ta iñoiak ur-tirali- ñak be izotz-mintzez estaltzen yá- kuz. Ego aldekoak eztira aini naspil- tsu, izotza ezta aini itsaskera ta ipar burukoa baixen ernez eztu arrakaltzen.

Izotz-mendioak, udan, geroa spel-tzerakoan, eten eta arrainkoak agitzen dira ia alkoholaren garaia eduki ur-gaiñez, ur-histeriaz, eta hurren-

kolkoak deiturik itxas-gerrirantzà bide dagiela. Edur-mukuluok —ice-bergs— oso urriñera joan oí yakue askotan, buruetako izoztegietatik, etenda itxas beera. Sarri 70 metroko goiera euki oí dabe, 100'rañie be iñoiiz eldurik; eta urpeko alderidio urgain dagoana baiño hostsej zabaleran, barriz, zelako izoztegitik datorren izan oí da. Ipar-buru aldean, Groenlandia'tik etorten dira geienak, Pazifiku'ra, Siberia'ra ta Atlantiku'ra edaturik. Terranova aldean dantzari dabiltzan edur-mendiak oso ezagunak dira.

Eta bide ezagun barik alderra dabiltsan izotz-pillo ikaragarriak izu-eldardar erabilli oī dabez gurutxastarrak. Uda aldera batez begainean dabiltzara ta ona, alkarratatu ta itxi, gain jausten yaker edurrez are ta geiago ludituz; jorrera bat dakarre, burutik gerrirantz. Toki batzuetañ, gainera, bee-laiño lodia sortzen da izotz-mukulu orreilk lagunduta edo, ta bion artean, izotz ta laiño, triskantza ikaragarriak burutu oī danez sarri askotan, urtero ontzirik asko urpea. Hildurik, 1912'garren urteko apirilaren 15'an, Laterri Batuetarako asteroan joian **Titanic** 47.000 tone-ladako ontzi barria, olako izotz-mendi hategaz topo eginda, bein-

goan ondatu zan, bertan joiazane-  
tatik milla bosteun ta amazazpi  
pertsona illik.

Ego burukoak be oso arrisku-  
tsuak dira, aundiagoak eta sarria-  
goak eta ur epeletara geiago ure-  
ratzen diranak. An-ameni eten ba-  
rik eratzen dira igeri dabiltsar-  
izoztegi neurgaitz ezbardiñetan  
Zear-zabaleran kilometru asko ar-  
rizen dabez, batzuetan 500 k<sup>2</sup>. eldu-  
rik; Buena Esperanza Iur-mutu-  
rrean takean potean eta Rio de la  
Plata'n be iñoiż ikusi izan dira ola-  
ko edur-metak igeri.

Itxas-buru oneitatik kanpora nekez izozten da ura, sail aundieta berriñik-bein; zenbaitetan, alan beotzitu oj da; esaterako, Alaska ondoko Bering itxas-barrutian, Kanin'go lur-adar alboko Itxas zuria Botnia ta Finlandia'ko iparaletran, izatz-orma kendu lirakoa leku goz negu aldean.

Otzaren eragiñā ezta ur odo forazalekoa bakarrik, egiazkiñak bi izoztu daiteke ura, ta lurrin ber, zurratxingorra ur izoztua lehendik ez ditugu. Beraz, gaur zehar piztiazear egaz dabilitzan egalontzienez guda aldi ta garatz-arazetan bereziki, arrisku aundikoa da izotzea. Egazkiñak izoztea sarri ezta jazo

ko, baiña jazo daitekena dogu; ontzizain trebeak iges egin leikeo arrisku oni, baiña gitxien uste danean etorri oi olako galzoria. O "C'ko giro-maillan euria danean, eta egazkiñari zirrikituetan ur-tantak geratzen yakozañean, ur-tantok egazkiñak daroan abiadeaz izoztu egiten dira, —9'tik O'C'rako giroan batez be. Laiño-odeiak, otzago danean, izotz-leiarrezkoak dira ta ez yakozaontziari erantsiten. Ur-tanta izoztuak batzuetan aurreko egoertzetan eta buztan gaiñean, elize, ingurubil ta onako urten-buruetan geratzen dira dingilizka; beste batzuetan, edur, bisuts eta kaskabar antzeko, zugatzetan zurda lez, Izañ oi da; eta biok, pixua geituz gaiñera, egazkiñaren ozka-sail, lotura ta ardatz-gurpillai ez dautse bear leukien lez lan egiten izten. Eta oniek, Igarri barik, ondame ikaragarria ekarri leikeo egalor

Galtzarakoan, gaurko egunean, gauza eskorri dagokio izotzaren ondoa. Ozgarri lez industrian eta apreko bizitz-arrazoetan asko daramilgu. Bizikera erosotzeak eskuratudauzu au, ta ortan berezko izozta doigu lenengo, meatz zulo ikerayari lez: berezko izoztegietan mukuru aundiak ebagi ta ontzi edozein lekutara daroaguz; lur-ba-

rruko izotz-oletan egiña, barriz, ugaria da ta ainbat gauzatan daramilguna.

**Uraren margoa.** Itxasoko urak askotariko gatzak, gaiak edo gorputzak daukoz, nastean: fluor, koral-atxetako karean; burdiñea, boro, siliki, arsenik, manganeso, aluminio, kesi, posporo, liti ta ahar itxas-ontzieri itsasita; hidrogenu, oxigenu, kloru, potasi, sodi, bromu, kalzi, magnesio ta ikatzarritik be asko; ur-bedar eta aloka artean eta abere-ziriñetan tupikia, zinko, beruna, nikela ta kobalta; urea ta zidarra be bai, zidarra meta aundi samarretan aurkitzen da, atan be.

Gorputz guztiok, heiz-ta berez bakotxak bere kolorea izan, danoen artean olako margo berezia ezaten dautse, antza, itxasoko urari. Orixegaitik, kresala berez kolore bakoa izanik be, ur-mukulu luze-zabalak margo arre, urdinak, baltz-zurizka daukala esan geinika. Erlaiz urdin au aldatu daiteke, ta orrela dagie askotan itxasoko bere sabel-barro daukazan abere-sail, maskor-sarda, bedar-zelai, urforategi, arrain-txontxorro, amarratzaitz, aloka-troska ta pendikak. Georetik itxasorantza doazan ibi jukon batzuk be kolore sostutu ohi saskareta loi lupetsua eran ohi ditzu.

be, Zer guziok aldatu oihabe, nolizik bein, itxas uraren margo urdiña.

Naste oneik dirala-ta, Ipar-itxasoak eta Guinea'ko urak zuri emongoak orimin, Kanarias eta Japon'res'koak musker, eta Kalifornia inguruokoak larrosa antza. Koloreatza arturik, izenak be orrelaxe da. Itxas Gorriari, adibidez, aingo izberoz ango ta emengo itxaso askok; dar ta aloka moltso aundiakaitik deritxo olan; Itxas Zuriari, bertan igeri dabiltsan izotz-mendi zuria potean jagi oihiran ekaitz arris, kaitik, eta Itxas Baltzari, an pitean kutsuakaitik,

Itxasoa, alian be, oso gardena doazu; erdirago ta gardenago. Bota bi luze-zabal daukazan kurpil bat, eta zeure begien indarrez be, iruretsean bar metro sakonera ederto ikuci ta bateztu daizezu. Itxas alde batzenetan, Iparrekoan eta Baltikoa hainbat bat, azpian nahasi ta alkimoltsu aurkitzen diran gaiak zirkulu ta lausotu egin daroe zerbaiz gaitseko uraren gardentasuna.

Eta itxas azpiko sakon-sail aundian, eta iba ezertariko dirdai edo

argitasun? Barren areitan ain ugari bizi diran kokomoko ta pizti bedegarrak, ete dabe argi-izpitri? Bailetz esan geinke. Gure berriak irureun metrora ezkero, ez dabe ur-barruan ezer somatzen; bosteun metroraiño luze diran itxas-landarak, orraitino, ta ur-azpiko eskualde zabal nasaietan dabiltsan konta-ezin olako abere-taldeak ez dira bizi, erakusteri dauskuenez, betiko illunaren altzoan. Guk baiño zentzuki osoagoak ei dabez, eta barren-zulo areitan be arriagaren zirradaz jabetu ta aren iku tu leunez gozartzen ei dira.

Itxas barruan ha-da —ezin gein ke ukatu— olako dirdira apartekoak, bai goitik araginio eltsen dana bai bertako gai ta gorputz askok alkarr zirikatu ta platu-erazoa. Gaik, meakiak, margozklak, landarak, bakteri ta txotxak, sail aundieta doguz urpean; eta gotoztiok, giro otzetai eta azken-sakonetan be, argi-isturri doguz lanetan —arrañak, ain zuen — eskerdak argia dabe, beste batzuk arrekakne edo noizik-bein emotonen dibuen. Uzpeko metalik asko, berez zehaztu izan ez arren, beste gorputz txotxak alkartu ta tril ejurru, argi-kredira sortu daikio, ta engur-guloko dagoz itxas azpina. Goiziaz batzuk, argi-sortze ala dakañtop ihun-

indarra, euren kizkin barruan bertan daukie, ipurtargiak esate baterako; geiagotan oindiño, indar au, abereak berak kanpora bota edo ingurumari ditun gaietan aurkitu oihda, ta itxas-uragaz ikutuan jarri ezkero, kipridina deritxogun oskal-dunak lez, argi egiten dabe.

Gorputz asko, gaiñera, bakteri ta ointoen artekoak bereziki, aldean daben indarraren bitartez argia sortzeko lain dira. Gaitasun onegaz orniduiako izaki geienak itxasoan bizi dira, ta kresalean bizi be, ez ur gozotan. Len-bizidunen (protozoos) artean argi emoten dabenak zigor aundidunak, zil esker-gadunak, aumalak (medusak), korralak eta aktiniak —**noctiluca milialis**, hantz be— ditugu. Meditarraneoan bizi dan **pelagia noctiluca** (gauargi ugerlaria), esaterako, guetiz ikusgarria da, dabilenean zail ta erro argi-urtika dizdizari. Elektroliko (anelido) ta arretabili hantzak era askok dirdai aundiak zehazten dabe. Ta, azkanez, misako, befaiki, nemertin, morketz, usial eta korkinoen artean beku-dipa arjitzuak,

Diski askotan salika ta moltsoka hizk dina gorputzok eta argitasun maha sormi dardet. Tropika bitartean, goti ta bee, guetiz indartsua

da olakoen argi-jarioa; ta toki areitau zear itxasoz dabiltsan bidaztiak gau illunetan, ikuskari lilluragarrriak euki oī dabez begi aurrean; dirdirazko miesa zuria dirudi itxaso zabalak, ontziak dagian ugara ezta ur-erreten apartsua, suzko argi-jauzizkoa baiño; aizeak jotean, barriz, goraka doazan olatu-gandrak itxura zoragarrizko su-txinpartak dira. Jazokun onek, lenago ur-tantak eta gatz-elak alkar jorik sortutenebena zala uste izan arren, jakitunentzat gaur eztau beste sorbururik aitatu doguzan maskor, aberetxo, koral-aitz eta izaki ezkutuak osoturiko millaka ta millaka moltsok egiten daben zear-dindala baiño.

**Odei-laiñoa.** Urak, len esan dugunez, iru egoera ditu: dabilleenan lobela da, leiturik legorkera artzen dau, ta lobela lurrunkera. Urak sortuak doguz odelaiñoa, eta arrigarririk aten beira lenengo lobelkera. Itxi ta lurrundu egiten yaku egurkiaren bezoz eta aizearen igarutzio, eta, gero, goitiko giro otzpean barruko iban eta lobelkera arturrik. Ibaiez, ibai kigu euri biurritua. Añibarre, eta legorki danean, leh odelaiñoa, lehrotu ezkerro, lenotegie mitu egiñaldi da, ta gelago beroru ederriko, lurrundu be hoi etxean ziek behin du ta urriude egiten dionta. Begira

lapiko bat: urak irakitean, kapela antzera, laiño-lurruna sortzen da, gaiñean biraka. Lobel batzuk dira, lurrunzen dira, beste batzuk dira, kezago; au da, lobel batzuk dira, geiago bear dabe lurruntzeko, bete batzuk gitxiago. Ura, gitxi-asko, edozein bero-girotan lurrundi da.

Eguzkiak batez be bere zanpatze kiskalkorrez, naiz itxasoan naiz lur-azalean, lurrun biurtzen da, ura. Goitiko sakeak be, jakiña, zer ikusi aundiā dau onetan; sakea Itxas- goieran ura 100 maillako berogiroz irakiten asten da; mendi ta, 100 maillara baiño len irakiten jarten da. Itxas gerriko ura, eguzkipar eta ego-hurueta koa baiño lena, lurruntzen yaku. Lurruna gero, pixu gitxikoa izanik, gorantz doa, berez-berez ta goian, barrion lobel naiz legorki egiñik, odeia sortzen da; au da, ura lurruntzean hankando ziran elak goiko otzagaz barriro batu egin dira, ura lobeldu edo legorturik. Goian daku kuzan zehi luñosak, bärda, urtanta txikiak edo leñarkiak besterik eztira, molmoitu. Odei batek, bero-giroaren iparretz, edo ur-tantak soilki euki ielkes edo ur-tantak eta leiarrak izotz-matasak batera,

Noiz eta zelan eratu ta egiten ete dira odeiak? Giroa gogor edo leor-neurriira eltzerakoan, edo ta alreak, saka ezagun batean, giroa or eukiteko lain ur-lurrun daukanean. Au lur-azalean jazoten danean, laiñoa daukagu; eguratsean jazo ba'dadi, odei bat eratzen da. Gun (nukleo) berezi batzuk bear dira orretarako, au da, gorputz txikiak eguratsean dindil, autsa naiz itxas-urak lurruntzean itxitako gatza: oneik antolatzen dabez odei-jarioak, giroa legor-neurriira eltxean. Uraren eral-bidea edo goraberea auxe dozu: ura, itxaso, ibai, zingira naiz lur-gainetik be-roaren indarrez eta alzearen igurdiz lurrundi ondorean, eguratsera doa. Gero zabalduraz, lurrun-urtze legeari jarraituki, otzitu egiten da ta estutuz ur biurtu. Aize-tirainak esku aundiā daukie öntan.

Tankera askotariko odelaiñoa da, zaugaz. Lenago iru eñakoak dira: 1) ipar-zelaiak; 2) odelaiñorak, eta 3) baldarrak. Ordu hori eñakoak oneitan sailkatzen dira, edo planteanak: 1) **Odei garaiak**, goi-ibarra gora batez beste edotsitakoak; 2) ipar-zelaiak, mei, zuri, zehi matasak; 2) **txanbolin-odeiak**, aljedol-matasak antzean goi-ibar matiltzak; 3) **balen-odeiak**, zero azpian dahiltzala burdin-orri meiarenen idu-

ria dabenak. II. **Erdiko odeiak** (6.100 goirantz, 900 metro beerantz); 1) **goi-zerrendak**, galaren buruak, puxika eran dabiltsanak, eta 2) **burduntziak**, zintz baltz luzeak. III. **Beeko odeiak** (lur-azaletitik 900 metrora tartekoak); 1) **baldarrak**, estalki antzera lur-gainez narras dabiltsanak; 2) **zerrenda-moltsoak**, kizkur-kiribillak; 3) erariak bako **estalki euritsuak**, txaramielak eta zaldizkoak deritxenak. IV. **Zuzen-beerakoak**, ots, enbatak eta mendebalak ekarririk, goitik beera ikusgarriro eratuak.

Eztagoz Iuzero odeiak ur-izpi bat-batzuekaz. Aizeak bada, odeia baiño azkarrago baitabil, ur-lurrun gelago ta geiago sartzen dau tar-teen, eta oneik ur-izpi edo tantatxo barriak sortzen dauz. Eta orrelaxe dabilts lurrundi ta urtu. Izpiño oineik, pliñak dira-ta, airean dabilts eñatenak, baiña euretatik millo bat inguruk alkar artu ta batuak. Ibaiez jausten dira euren piñug, goria. Odei bat-berean ur-tantako leizpiak, izotz-giroa baiño hiru ejo, batera aurkitzen diranean, ura leizpiak batzen da, ta leizpiak ur-tantako pentzutan ahi ta aipuliturik, edur-matasak antzera jausten dira. Edur-matasak, barriz, izotz-neurritik gorako giroa bidean aurkitu ezketiño, euri-tanta biurtu leitekez; baita bestera be.

**Ekaitzak eta aize-zirimolak.** Euri-gozoa eder, ez ostera ekaitza, itxaso ta lur kaltegarri dana. Alan be, sarri izan oi dira ekaitzak neguan eta udan. Gure aurretikoak naikoa errez ta ziur iragarri eroien urrengo egunez zelako eguraldia izango ziran. Egitsu ziran, ia beti, esakun oneik: «Arrats gorri, aizetsu; goiz gorri, euritsu»; «egoaren ondotik, euri»; «eguzki txuri, laster euri»; «eguerdiko euria, egun guztiko euria»; «euri ondoko leia, euriaren deia»; «ipar-euria, ogeita lau orduko euria»; «odei gorri, aize edo euri, egoa ezpaledi»; «urriko edura, zortzi illebeteko edurra».

Eta zeruko zelai zabala edo mendi-egalak ebezan euren igar-toki. Odeiak eta lañioak ze eratan aurkitzen ziran, alakoxe eguraldia egingo eban. Eta, ain zuzen be, odeien bitartez errez asmau leitatzek era batzuetako ekaitz eta egurasketak. Mendiaren kukutzean korro antzeria estutzen diran odei-zerrrendak laster ofizitu oi dabe eguratsa; burduntzi antzekoak lasterdakarre euri-zaparrada, baita inendabalak itxas-galñerik narras dakezun odei baltzak be.

Aize-erauntsi ta zintzilikak (uru-kanak) ikaragarrirrik izan oi dica naiz arrantzuan diarduen marinel-

lentzat naiz ontzi aundietan arat, onat dabiltzan itxastarrentzat. Gaur, alan be, radar-oiartzun eta egazkiñez ezta gatxa ekaitz oneik nundik norakoak diran jakitea. Errantza beti igitzen diran eskoria, antzeko moltsoak dituzu lenengo, ta gero goikoak, erdikoak eta begoak osoro nastutzen yatzuz, ekaitz-erdiaaren ingurumaian, aize beroak, otzak eta itsuak jirabiraka alkar arturik. Aize-biurri ta ziri, mol bildurgarri oneik noiz eta nuntretiez iragarteko, eta aulite bat bear litzake ortzipean.

Erauntsi oneitatik zakar kalte-ritxona da; oso bakana, autsez ta ko odea, zuta, gaiñeko galdorr bat-batez ozitzten yakonean itxurakaragarria artzen dauana. Aize biurriak sortzen diran lekuko urak, tirañakaz balera, guztiz naspilten dira ta itxas-azalean aurkitzen dabezan gauza guztietan triskantza esan-eziñak egin oi dabez. Nalkoa oneko ezagutzen dira Txinako ta Japoniako itxasoetan, eta Gineaiko ur-kolkoan. Europa'n ba-ziran beñiola; Mediterraneu'n eta Iur-arteiko itxasoan bat, antxiñako Karibdis, Eskila ur atxetatik orre, Sikkimko ipar-sortaldera,

Omer'ek eta Bergili'k abestu ebena; gaur, alan be, iparreko ta egoeko ur-tiralñak bertan alkar jo ezik, ezta an arriskurik; antxiña batetik ona, ba, diñoenez, nasaitu egin yaku Mesina'ko itxas-ataka. Bestea, Malström, Noruega ertzean dago, Kreso ta Loffoden'eko ugarteen artean. Izgoran eta izberan antzko arturik, Aize-biurri ta ziri, sortu-barri diran jakiteko, eta nuntretiez iragarteko, eta aulite) bat bear litzake ortzipean.

**Itxas-azpiko zalakarra.** Indartsuak dira itxas-uiñak, eta, mundu osoko lurrasoai ekin setatian jardunik, asko aldatu ta itxulaztu oi dabe lur-egaletako itxurea be, toki batzuetan mendi-mokor izugarrak eta aitz troska eskergak azpiz gora botarik. Urteen buruz kresalak, bere larrimin ta egon-eziñean, zati ederrak jan dautsoz lurrari; ikus egizu, astibidez, geure lur-ertzean, Matxitxako ondoko Gaztelugatxe'n urak ango atxoi egiñiko galkuntza. Urtez urteko ondamen ori ikusirik, gizonak itxasoari eusteko alejirik egin urenn, Donostia'n baitik haj. Ikerasot, berea eskatu oi dau, noizik hiztei lotze biurriak egiñaz. Dindutako are-metak be urak andik eta euen-dik ekarritako gai xentzko osotuak dira.

Olatuen burrukaz ausitako gaiak —arri, lur, zur eta abar— geienak, uiñak bekoz beko jotean, itxas ertzeko erlaizean pilotzen dira; olatuak zearka jotean, baiña, gaiñeko ondakin eta labar-ausiabartzia lur ertzean gelditu arren, urak beragaz darioaz ondar-pikorrik eta beste zati txiki ariñak, aizeak eta barne-eragiñak ezarritako igikunez dabilz borborreko biran, eta sarri olako barra antzekoak egin oi dabez lur-ertzerantza, baita gero egiazko zingirak be, inguruz inguru ondar-esiak ipiñiaz. Mediterreneu'n, Prantzia'ko ego aldean, Madagaskar'en, Baltiko'n eta Laterra Batueta'n olako asko daukaguz.

Ondakin eta gauza ariñak barrurago dlaraz itxasoak bere etenbaiko zirkinlean. Eta galok itxas azpiko toki baretsuetan gelditzen dira apurka apurka, ta onek dagi ur-errietaiko lokatza edo zalakarra (sedimento). Zalakar onek gaur, gai oide, mez osotua, lurrasoaren ingurumari hinez be, 100'tik 200 kilometro zabalerañ gitxigora ditu gerrikos egiten dau; itxas azpiko lurraso zerua deritxona. Lupe-tzak hainz, gitxi-asko, itxas-ondo pustia estaltzen dau; gorri-urdin, perdiat edo ubela dozu estalki urren kolorea, ezta baltza lurrardeetako ibai ta erreketan lez. Itxas

gaiñ aldea (*pelagicus*) eta mueta askotako abere, maskor, koko, landara ta gaiñerako itxas-loreen ondakiñez egiña dago.

Abere txiki oneitatik ba-dira batzuk, olatuak eta ibaiak itxas barrura daroezan saskara ta antzeko gaikein gauza arrigarriak egiten dabezanak. Gai orreik, bear bada —kare-ikazkia ta abar— kaltegarri litzakezan uretan dabiltzan bizidunentzat; kresal abere txikiok, alan be, gai kaltekor orreitatik onura arturik, urari edoskitako kare-guneaz euren kuillu, oskol eta maskorrak eratzen dabez, guztiz txairo; urak garbituz itxas azpiak beteten ditue euren azur-utsez, bear bada ugarte barrien zution izanik. Koral-ugarteak eregiten da-bezan itxas-lorak (polipoak) be, beste orrenbeste dagie: ura garbituz gainera, kare-ikazki bitartez euren soin-azurrak eratu ta bizitegiak antola. Arriigarria benetan!

**Itxasoaren goibea.** Koral ugarte itxas-antzez egiñiko hizkigidantzariak arras ugariñik dira. Buruan era ta itxurek, e-hondilak, hemen lucez-luze ur-arti ardoa uholdeko, millo ta mukur-urtegi jarran, corri-saillet amolditzen ditzo. Mekane-erdianzta sarriz, eraztun jugezko antzeko ugarteak daguez aldi-

turiko ur-aberetxuok, iñoi ur-mael naretsua be eraturik. Itxas bedarrezko aitzok, goitik beera landuta, ur-azpitik gora jagioz doaz, kresal gaiñetik be oin batzuk agiririk, eta ugatz antzera edatzeko dan zingirari txera egiñik adigu. ritsu. Koral-meta ikaragarrion, aut-gaiñean eratuak izan dirala, naiz luraren zirkin nagien eragi, ņez uinpean ostendutako izaro batek, euskal barik aurkitzean, itxas piko ondarrera doaz; eta, koral, oñiarriok berrogetamar metrotik, beera jausten diranean, abere pi. tin oneik be, beerago uretan bizi egiñik, edo il egiten dira edo beste bizitegi batzuk antolatu.

Mukulu guztiok, alan be, itxaso aunditu egiten ete dabe? Gitxi-asko, baietz esan bearko. Itxasoaren goibea, orraitin, toki guztietan bardin dozu beti. Ango ta emengo urak guztiz jarioak eta ixurkoiak diralako, itxas azala beti lerro zu, tari dagoekiona da, goierazko gaiña egiñik. Ur guztiak dagoz bardin sahar, ez gorago ez beerago. Antxiakoak uste eben, Napoleon'en gudari-salleko jakitunak batez be, Meditarreneu ta itxas Gorria etxialda neurri bardinean aurkitzen; bainha geroago, Suez'eko ur-aska

edegi zanean, ubide a egin eben gizon trebeak besterik zala egiztu al izan eben.

Lege bat-berearen barrutian dabiltz, ba, itxaso guztiak. Toki batzuetan, jakiña, alde pizkat izan daiteke, itxas-ertzak, izgora-berak eta tiraiñak ez baitira bardinak; eta oneik zerbaiz aldatu daikie, bainha bestelan, alkarrategaz artu-emona daben itxaso danetan ur-gaiña goibea bardinakoa dozu. Ez laua gero,

zabalune mendarretan agiri danez, luraren borobil-erari datxikiola, gain ori, boil-erdira doan lerro zutagaz bat dator, edozein une edo puntutan. Lur-barrura, alan be, bai itxasoak bai zingirak, aurkitu leittekez beerago edo gorago; Kaspi itxasoak ta Illa, esaterako, bata ogetasei ta bestea irureun ta larogeta lau metro beera dagoz, eta Peru ta Bolivia tartean daukagun Titikaka zingira ospetsua 3.812 metro gorako.

Oiz

